

BERRIGARA

101. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, martxoak 27

**KORRIKA
ASTEAZKENEAN
BERGARATIK
PASATUKO
DELA ETA,
HAINBAT
EKITALDI
ASTEBURUAN**

**ETXANIZ
ETA
ZEZEAGA
TXAPELDUNEKIN
BERRIKETAN**

KIROLAK

**SENIOR
GIZONEZKOEN
ESKUBALOI
TALDEAK
IGOERA FASEA
JOKATUKO DU**



**Udaberrian
odola bero
eta burua
zoro**


JUAN TABARES

THE



Burberrys
OF LONDON

LOOK



egizabal




CARTUJANO

Bikote bat da, TWINS izenekoa, eta ezberdinak dira

GORLA

ELEKTRAGINTZA




- INDUSTRIARAKO INSTALAKUNTZAK
- ETXEETARAKO INSTALAKUNTZAK
- SEGURITATE ALARMAK
- AUTOMATISMOAK
- MAKINEN BERRIKUNTZAK
- ABIADURA ERREGULATZAILEAK

Mugerza, 3 BERGARA
☎ 76 19 07

URTEKO
25
ESPERIENTZIA

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!



SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE
HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00

PHILIPS




TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,
LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51



BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfektzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tínoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Eduarne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeltia, Josune Inarra eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifu.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

GAZTETXEA

Ostegun goizean Bergarako ehundaka gaztek Gaztetxeak gaur egun jasaten duen egoeraren aurkako protesta azaldu zuten, Ibargarai kalean trafikoa moztu eta jarraian herriko kaleetan manifestazio bat burutuz.

Jakina denez, Apezpikutzak gazteen lokala berreskuratu nahi dute eta hauek, aldiz, ez daude prest 25 urtetan berena izan den lokala uzteko.

Ostegunean bertan 2 aldetako testiguen deklaratu zuten. Gaztetxearen (orduan *Juventudes Parroquiales* zena) sortzailetako batzuk



ordaindu zirela adierazi zuten eta Apezpikutzako ordezkariak horren berririk ez zuela esan zuten.

Testigu guztiak deklaratu eta falta diren probak egin ondoren, sententzia jakinaraziko da.

Gazteek lokala uztearen kontrako jarrera azaldu dute

ITURRI ONETIK

Herriko harmarria finkatu nahian

Bergarako harmarriaren erdua behin betirako finkatzeko proposamena aztertuko da asteleheneko Plenoan. Andoni Larrañaga Kultur zinegotziak egindako azterketaren arabera, orain Udaletxeko fatxadan dagoen harmarria proposatzen da eredu bezala Udaleko sinbolo izateko, orain erabiltzen diren gainontzeko forma ezberdinak baztertuz. Era berean, harmarriaren koloreak finkatzeko proposamena egingo da.

ESAN DUTE

"Bergara eta Hondarribia dira auto-konpetizioetan dabilzan Gipuzkoako piloto gehienen sorterri oparoak, auto-lehiaketan motorra".

JAVIER ROLDAN
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

"Herri osasuntsu bat kulturalki subentzionatua egon behar dela dirudi. Hala ere, heltzen da momentu bat artistak berak etorkizuna bere kabuz bilatu behar duela".

J. M. LAZKANO
Margolaria
EGIN

"Parisen, 20 urtekin ezagutu genuen elkar Jesus Mari Lazkano eta biok. Ordurako hiperrealismoarekiko zaletasuna azaltzen zuten".

ALVARO BERMEJO
Idazlea
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

Atseden zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinak eta
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tínoa: 76 23 48

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



ALGUNOS HOMBRES BUENOS

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30 eta 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



LA BELLA Y LA BESTIA

Igandea: 11.30.



AMERICAN ME
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Jack Nicholson, Tom Cruise eta Demi Moore aktore ezagunek protagonizatzen dute antzerki lan batetan oinarritutako filme hau. Epaiketa militar batean Tom Cruisek azkenerarte heldu nahi izango du baina mila oztopo aurkituko ditu bidean.

▼▼ Jean Coctearen ederra eta piztiaren arteko istorioan oinarriturik, Walt Disneyk eginiko marrazki bizidunen filme honek izugarritzko arrakasta lortu du munduan zehar.

▼▼ *Corrupcion en Miami* telebista serieko Castillo tenienteak (Edward James Olmos) kritika oso onak jaso ditu berak zuzendu eta protagonizatutako filme honegatik. "Amets amerikarra"-ren mitoari buelta ematen dion filmea.

Ikuskizunak

▼ **Musika Eskolako Jazz Taldea** ostiralean gaueko 11etan Pol-Polen.

▼ **Angiolillo eta Fucking what** taldeak larunbatean 22.30etan Gaztetxean.

▼ **Korrika** helduko da asteazkenean Antzuolatik Bergarara, arratsaldeko 3 terdietan.

▼ **Jon Lazkanoren "Daulaghiri"** diapositiba emanaldia asteazkenean 19.30etan UNEDen.

Farmaziak

▼ **Larunbata 27:** Mozos/Español (Arrasaten gauez).

▼ **Igandea 28:** Mozos/Corcuera.

▼ **Astelehena 29:** Camacho/Irizar.

▼ **Asteartea 30:** Puy/Amezua.

▼ **Asteazkena 31:** Guallar/Ruiz.

▼ **Osteguna 1:** Estella.

▼ **Ostirala 2:** Mozos.

Ogia

▼ **Igandea 28:** Ogizun.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Erakusketak

▼ **Pol Pol Argazki Taldeak** talde modura antolatzen duen lehen argazki erakusketa ikusgai izango da apirilaren 4ra arte Kultur Etxeko erakusgelan.



Miren Leturiaren argozki bot

▼ **Fernando Ecenarro** bergarar pintorearen margo eta marrazkiak ikusgai Nahikari tabernan.

Kirolak

▼ Eskubaloia:

- *Bergara-Legazpi* (jubenil neskak). **Larunbatean** 16.15etan.
- *Bergara-Beasain* (jubenil mutilak). **Larunbatean** 17.45etan.
- *Bergara-Pasaitarra* (senior gizonak). **Igandean** 12etan.

▼ Futbola:

- *Bergara-Real Union* (lehen mailako infantila). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.
- *Bergara-Anaitasuna* (lehen mailako kadetea). **Igandean**

Aukerak

▼▼ **Korrikari** ongi-etorria emateko antolatu diren ekintzen barne, **Taun-Taun Txotxongilo Taldeak** "*Bi Kate*" antzezlanaren eskeiniko du igandean, arratsaldeko 7etan, Zabalotegiko aretoan. Istorioren haria umorea izanik, Taun-Taunekoez zahar bikote baten oroitzapenen berri emango digute. Argazkian, Pili Garzia Taun-Tauneko kidea.



5

PROFESIONALAK

Larunbatean ez da pelota partidurik izango Bergarako Udal Pelotalekuan, Zezeaga eta Alustizak Tolosan jokatu beharreko eskuzbanakako txapelketako partidua dela eta.

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Iturkintz Berri

Amillaga 1
(B pabilola)
BERGARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

Luis Mari Bandresi

Kaixo Luis Mari:

Behin eta berririo irakurri diat hire gutuna eta iruditzen zaidak ez duala nire lehenengoaren zentzua ulertu. Ez zen nire helburua ikastolek hartu behar duten erabakiaren egokitasuna eztabaidatzen hastea, baizik eta "hainbeste urtetan ikastola bateko buru bezala jardun duen batek", Bilboko manifestaldira joateko izan zitzaizkeen arrazoiak azaltzea.

Dena den, benetan pozten nau hire erantzunak beharrezkoa dugun eztabaida batetan zentratzen laguntzen gaituelakoan nagoelako. Aranzadi Ikastola maiatzaren 25a baino lehen erabaki garrantzitsu bat hartu beharrean zegoen, eta erabaki hau ikastolako bazkideen esku dagoenez, ahalik eta informazio zehatzena ematea komeni zaigu. Tranpa barik eta karta guztiak bistaratu. Hori duk hain zuzen gure helburua eta horretan saiaturiko nauk bai orain igortzen diadan erantzunean, eta baita ere aurreantzean egon daitezkeen bilera, batzar e.a.etan ere.

Lehenengoz azaleko matizazio bat. Hire gutunean konsensusaren adierazgarri bezala, Ikastolen konfederakundearen paper batetan agertutako esaldi bat aipatzen duk. Utziezaidak hik aukeratutakoaren parean pasarte osoa argitaratzen, irakurlea bera izan dadin bere ondorioak aterako dituen.

Azpmarratu duk: "Dicha Ley contiene la posibilidad técnica y jurídica para que las ikastolas y otros centros tengamos una correcta solución". Pasarte osoa honako hau zen: "3. Mostrar nuestro rechazo al modelo de escuela estatal que el PSOE quiere imponernos a todos, mediante la Ley de Escuela Pública Vasca que será aprobada

en el parlamento. Dicha Ley contiene la posibilidad técnica y jurídica para que las ikastolas y otros centros tengamos una correcta solución. Sin embargo, así como el PNV se mostró dispuesto a analizar nuestras propuestas, el PSOE se ha cerrado a cualquier negociación". Hau al da konsensusa?

Gaur interesatzen zaidan harira itzuliaz, esku artean darabiltzgun lau puntuak aipatu nahi dizkiat.

a. Era guztietako autonomia baztertea, laborala eta finantzieroa bereziki galduek. "Hori ez duk egia" diok baina inondik inora ez duk horrelako baieztapenik frogatzen. Egia duk Ikastolek autonomia osoa duela gauza bat ala bestea aukeratzeko. Baina egia duk ere, onartu den legeak ez duela guk nahi genuen eskola berri horrentzat plazaratzen genituen gutxienezko baldintzak betetzen, autonomia laborala eta finantzieroa erabat batzertzen dituelako bere 56, 57, 58, 59 eta 66. artikuluetan bereziki.

Egia da, era berean, gaur gauza bat edo beste erabakitzeak autonomia dugula, baina ez Euskal Eskola Publikoko zentru garelako, baizik eta kooperatiba garelako.

b. Perfilen kontuan dokumentu desberdinak erabili dizkiagu itxura denez. Dekretoa agertu ez denez, nik, hik izenpetutako "Acuerdo político para el pacto escolar" hartu izan diat erreferentzia moduan eta hau irakurri diat (erdaraz dago esku artean dudana alea).

Se acuerda la siguiente distribución de perfiles lingüísticos por modelo: modelo A: PL1 (11), PL2 (3); modelo B: PL1 (4), PL2 (10); modelo D: PL1 (1), PL2 (13). Los once PL1 que corresponden al modelo A son perfiles sin fecha de preceptividad en el plazo de diez años...

... por lo que respecta al PL1 del modelo D su preceptividad será inmediata.

Ikusten duenez hemen ez da esaten "izan

daiteke" eta halakorik, baizik eta "se acuerda" eta "será". Bi gauza ezberdin dituk ezta?

d. Ikastetxeen tipologia berriaren araber, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bihurtzea, proiektu pedagogiko orokor bat ezabatuz. Hemen dirudienez ados gagozak.

e. Urteetan zehar osatu den plantila desegitea. Zoritxarrez honela izango duk. Egia da legeak (Irakaskuntzako Ikasleen kidegoei buruzkoak), lanpostuen iraunkortasuna bermatzen duela pertsonalagoaren zati handi batentzat bere Aldi-baterako erabakietan. Baina hau ere egia duk, "hautaketa aldian parte hartu eta gainditzen dutenek beren lanpostuetan jarraituko dute, ikastetxeetako lanpostuen sailkapenaren ondorioz egin daitezkeen moldaketan aldatu gabe".

Beraz, d. puntuan ados bagaude, gaur egun 46 gela duen ikastola honek, 28-29 bat izango ditu etorkizun hurbil batetan. Zer gertatuko da soberan izango diren 20 irakasle inguru eta ez dozente guztiekin? Zein izango da orduan ikastetxearen lanpostuen sailkapena? Ez al da plantila desegiten?

Ikusten duk Luis testu berdinak erabiliaz ondorio desberdinak ateratu ditugula. Behar bada, eta gure bazkideek hartu behar duten erabaki horren garrantziaz jabetuta gaudeenez, komeniko litzateke nerezaz aparte besteren baten eritzia ere jasotzea. Horregatik Luis, gonbidatzen hautu hik nahi duan eran edo moduan nik ongi ulertzen ez ditudan hik ikastolako guraso eta langileen aurrean argitzea, guztion onerako izango delakoan. Afaria nire kontu.

Iñazio Arregi

Tiira ba!



Josu Okina

Bilkura agiriak berriztu

1575.etik 1603 urtera bitarteko Bergarako Bilkura Agiriaren lehengo liburua eraberritu da, Udal Artxiboaren urteroko eraberrikuntza programaren barne. 373.000 pta. inguruko aurrekontuarekin, hiru hilabete behar izan ditu Bilboko Argi 3 enpresak lan hori burutzeko.

Abelazleen batzarra

Deba Garaiko Abelazle Elkarteak dei egiten die bere bazkideei igandean, hilak 28, eguerdiko 12etan Leintz Gatzagako Kultur Etxean egingo den Ohizko Batzar Orokorrean parte hartzera.

Udalak 40-45 etxebizitza sozial eraikitzeko lursail bat erosiko du

Bergarako Udalak Movillaseneko fabrikaren inguruan 3.600 m²-ko lursail bat erosteko asmoa du, bertan etxebizitza sozialak eraikitzeko asmoz. Astelehenean, hilak 29, arratsaldeko 7 terdian egingo den Plenoan aztertuko du Udalak lursail hori 28 milioi pta. tan erostea.

Erosketa onartu bezain laister, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentuarekin kontaktuan jarriko litzateke Udala prozesua martxan jarri eta obrak lehen bait lehen burutzeko asmoz. Printzipioz 40-45 etxebizitza sozial eraikiko litzateke. Aldi berean, auzo horren errehabilitazioa lortu nahi du Udalak. Victoriano Gallastegi alkateak aipatzen duen bezala, "auzo hori nabiko egoera txarrean dago eta gure asmoa berau indar-



Plenoan Azoka arautuko duen erregelamendua aztertuko da.

tzea litzateke, kontutan izanik industria mailan ezin daitekela haunditu. Gainera Eusko Jaurlaritzako oneritza dugu jadanik, oso leku ona dela esan digute".

Asteleheneko Plenoan, besteak beste, Gurutze Gorria (Berdintasuna da demokrazia), Emakunde (Yugoslavia ohiko emakume bortxa-

tuak) eta LAB, ELA eta CC.OOren (egoera ekonomikoa) mozioak, merkatuaren erregelamenduaren behin-betiko onarpenera, hainbat kaleren euskarazko izenen zuzenketa edota Bergarako kirol talde eta kirolariei dirulaguntzak emateko erregelamenduen hasierako onarpenera aztertuko dira.

Udaberrian c'est l'amour

Ostegun arratsaldean jende dexente bildu zen Mariaren Lagundiko aretoan Amodiozko Gutunen I. Berrigara lehiaketaren sarietan banaketa jarraitzeko. Jone Larrañaga *Euskadi Gazte*ko kideak aurkeztu zuen ekitaldia; Mikel Markezaren kantalditxoaren ondoren, Oier Araolaza (lehen saria, 75.000 pta.), Mikel Lagunilla (2. saria, 40.000) eta Jon Sanchezek (Bergarako onena, 25.000) beren sariak jaso zituzten. Amaitzeko, Jon Sanchezek poesi errezitaldi bat eskeini zuen Iñigo Alberdi pianujolearen laguntzaz.



GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA



Quattro Stagioni laukotea Bergaran

Quattro Stagioni Oslo (Noruega)-ko laukoteak kontzertu bat emango du datorren ostiralean, hilak 2, Seminarioko elizan 8etan, sarrera dohan izango delarik. Carl Hogsetek sortu eta zuzenduta, ahotsezko laukote hau munduko onenetariko omen da.



Aritzeta abesbatzak antolatu du biharko kontzertua.

Antzuolako egoera irratian aztergai

Larunbatean, hilak 27, Loiolako Herri Irratiaren "Herriz Herri 93" kanpainaren barne, Antzuolako egoera izango da aztergai "Krisian, geroari begira" saioaren barne goizeko 11.30etatik 12.40etara. Antzuolako alkatea eta beste bi pertsona gonbidatuko dituzte eta entzulegoak 810857 telefonora zenbakira deituz parte hartu ahal izango du.

Haurrentzako bideoa

Larunbatean, hilak 27, goizeko 11etan, "Peru isatzik-ez" haurrentzako bideoa emango da Kultur Etxean JARDUN Elkarteak antolatuta.

Kontzertua bihar Sta. Marinaran

Aritzeta eta Araiako abesbatzen eskutik

Bergarako Aritzeta abesbatzak antolatuta, larunbatean, hilak 27, Aritzeta eta Araiako abesbatzek eta Araiako txistulariek kontzertu bat eskeiniko dute arratsaldeko 8etan Santa Marina elizan.

Bergarako abesbatzak duela pare bat urte Araiara egindako bisitaren itzulerakoa litzateke larunbateko musika jaialdia. Lehenbizi Aritzetak, Izaskun Labaienen zuzendaritzapean, 3 kantu abestuko ditu (*Tourdion*, Alfred Herzogen *Paikün* eta B. Lertxundi eta Ondarraren *Herribera*). Ondoren

Araiako abesbatzaren eta Araiako Txistularien txanda izango da, baikoitzak lau bat lan eskeiniz.

Jarraian Araiako abesbatzak eta bertako txistulariek, Alfredo Marquinezaren agindutara, J.L. Ansorenaren *Bizi berria*, Pablo Sorozabalen *Maitte* eta Kepa de Miguelen *Goizean argi astean*.

Eta, amaitzeko, Araiako eta Aritzetak abesbatzek elkarrekin abestuko dute J. Urruñuelaren *Maitia* nun zira eta Chanton Piperri izenekoa. Kontzertua amaitutokotan, guztiak afaltzeko bilduko dira.

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594



KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

**HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62



PINTURAS BERGARA, S.L.



Arane Erreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxe: 76 11 40
BERGARA

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK
- Etab...



Astebururako hainbat ekitaldi iragarri dira Korrikaren inguruan.

Asteazkenean, Korrika

AEKren aldeko euskara festa gure herrira helduko da

Asteazkenean, hilak 31, gure herrira helduko den Korrikaren inguruan hainbat ekitaldi iragarri dira astebururako.

Ostiralean Musika Eskolako Jazz Taldearen emanaldia izango da gaueko 11etan Pol-Polen, larunbat goizean kuestazioa izango da kaleetan Kukuma hankapalu eta Kobok dultzainero taldeak alaituta eta, era berean, Plazan eta Merkatu Txikian Korrikaren oroigarriak jarriko dira salgai. Arratsaldeko 7etan txistorra banatuko da Irala kalean eta trikitilariak, dultzaine-

roak eta txalaparta izango dira bertan. Gauean, berriz, Angiolillo eta Fucking what taldeek kontzertua emango dute 10.30etan Gazte-txean. Bukatzeko, igandean 7etan, Xamatzeokoekin dantzak izango dira eta Taun-Taunek "Bi kate" antzezlan eskeiniko du Zabalotegipeko aretoan.

Korrika, esan bezala, asteazkenean heldu zaigu arratsaldeko 3^{er}dietan Antzuolatik eta herriko hainbat kolektibo, talde eta ikastetxek 7-8 Km.ko tarte bat berteko dute.

Gutxituentzako irteerak

Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren kolaborazioarekin, apiriletik urria bitartean Benidorm, Fuengirola, Tenerife, Palma Mallorka edota Xansenxon burutuko den bidaiara programa zabal bat iragarri du. Programa honetan 16 urtetik 65 urtera bitarteko minusbaliotasun fisiko, organiko edota sensoriala duten pertsonek har dezakete parte eta eskabideak martxoaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Ongizate Zerbitzuan.

Oilagorren salaketa

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkartek aste honetan San Juan errekan amorrain eta sarbo gehiago hilik agertu direla salatu du. Beren esanetan eraso ekolojiko hau isurketa baten ondorio izan daiteke. Era berean, Oilagorrek erreka zaindu eta peskariak kontrolatzeko eskaera egin dio Ertzantzari.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Aldoka Maldoka

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80
76 06 37

BETI ALAI

Zubiaurreko elkarte saltseroa

Beti Alai elkarteak duela 17 urte sortu zen lehen San Miguel Pe elkartearen zegoen lekuan. Lokala alokairuan zuten San Miguel Pe-koek, eta orain duten lokala erosteko aukera izan eta hara joan zirenean, Beti Alai elkarteak sortu zen lagun talde batek osatua. Bazkide gehienak auzokoak dira. Beti Alai elkarteak sortu zenean 65 bazkide ziren, eta gaur egun 48 dira. Bazkide guzti hauen batzbesteko adina 45 urte ingurukoa da.

Angel Goenetxea, Fernando Urbina eta Pedro Toledok azaldu dituzten elkarte honetako atekak beti daude zabalik bazkide berriak hartzeko. Honek arrazoia 17 leku huts daudela da 65eko kupoa bete arte.

Urtean, nahiko jan eta edan ondoren 2.000.000 pzta. tako dirutza batzen dute elkarte honetan. Hontaz gain, hilean 1.500 pzta. ko kuota ordaintzen

du bazkide bakoitzak. Kuota hau orain dela gutxi igo dute. Lehen 1.200 pzta. ordaintzen zuten hilean, baina sukaldearen berrizteko prestamoaren eskatu zuten, eta orain horri erantzun beharra dago.

Falta kontutan sartuaz, nahiko ondo dabilta. Ia ez dago faltarik. Hilabete batzutan 500 bat pzta egon daitezke, edo Fariassen batzuk, baina gauza haundirik ez.

Sukaldeaz gain, ez daukate momentuan inongo proiekturik. Lokala alokairuan dute, eta beraiena ez denez, ezin dute nahi haina konpon-



Beti Alaiako bazkideak erlarteko afari batean.

keta egin.

Beti Alai elkartearen oraindik ez da emakumerik onartzen, baina hiru bazkide hauek azaldu dituzten ondo egongo litzateke. Kupoa betetzeko interesatzen zaie. Bai-

na esan dutenez, arazoak egongo lirateke.

Gaur egun 3.000 pzta baino ez du jarri behar bazkide izan nahi duenak. Diru kopuru txiki hau bazkide berriak erakartzeko da. Baina elkarteak deuseztatuko balitz, eskubiderik ez lukete izango.

Sukaldaritza atsegin dutenak ere badira elkarte honetan. Besteak beste, Joaquín Rodríguez baskoia gertatzen artista dena.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1976.eko azaroaren 20an.

BAZKIDEAK: 48.

HELBIDEA: Zubiaurre, 5.

PRESIDENTEA: Joaquín Rodríguez.

ELKARTEAREN EGUNA: Urriaren lehenengo igandea

URTEKO KUOTA: 18.000 pzta.

Ainboa Lete

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA



ZINTRUENIGOKO UDAL KANPINA

- Tutera, Moncaio, Fiteroko bainuak, bardeak..., oso hurbil
- Urte osoan zabalik
- Bungalobak literekin

ZATUZ ERIBERARA

☎ (948) 81 24 77

BELENGUA
Taberna
Pintxoak, kafeak...
Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

BERGARESA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimarak
Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27
Faxa: 76 04 77 BERGARA

HARATEGIA - URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

TXAPELDUNAK

Etzaniz eta Zezeagak osatutako bikoteak enpresa tradizionalak antolatu duten eskuzbinakako pelota txapelketa eskuratu zuten joan den larunbatean Bergarako Udal Pelotalekuan jokaturako finalean Urionaguena eta Galarzari 22 eta 15 irabazi ondoren.

Lehian aritu diren lau bikoteetatik onenak direla erakutsi dute bergarrek, zazpi partidutatik bakar bat galdu dutelarik. Ondoko orrialdeetan, txapeldekun eta Iñigo Idarreta Bergarako Enpresako enpresariarekin izandako solasaldiaren berri ematen dizuegu.



ETXANIZ eta ZEZEAGAK ESKUZBINAKAKO PELOTA TXAPELKETA ESKURATU ZUTEN JOAN ZEN LARUNBATEAN BERGARAN

Joan zen larunbatean lortutako garaipena ospatzeko denbora izan dute honez gero bergarar txapeldunek. Astean zehar, oster, jo eta ke aritu dira larunbat honetan Alustizaren aurka Zezezagak Tolosan jokatu duen banakako txapelketako lehen partidua prestatzen. Etxanizek beteko ditu botilero lanak.

- Lehen aldiz Bergarako bikote bat, eskuz binakako txapelketaren irabazle...

- **Jokin Etxaniz:** Bai hasieran ez duzu sinisten, baina atzekaldean izan dudan lagunarekin normalean da txapelketa irabaztea. Txapelketan zehar ondo aurkitu naiz, baina uste dut txapelketa atzean erabaki dela, bi pelotarik Galarza eta Zezeagak diferentziak markatu dituzte.

- **Jose Mari Zezeaga:** Egia da partiduak atzean erabakitzeko direla, baina aurrean ere laguntza izan behar da eta Jokinek demostratu du pelotan jokatzen argia dela eta ondo aprobetxatzen dituela bere aukerak eta uste dut biok oso bikote gogorra egin dugula.

- **Finala jokatu baino lehen ze taktika presatatu zenuten, Galarzari**

ETXANIZ-ZEZEAGA:

"Prest gaude Alustiza-Maizen aurka jokatzeke"



aurre egiteko?

- **J. E:** Gure asmoak Jose Mari dominatzea eta ni aurrean tantuak sartzen saiatzea ziren, baina ez nintzen asko sartu eta partiduak aurrera egin ahala pelotak arrimatu eta partidua luzatzea erabaki genuen.

normalean partidua luzatzen denean Galarzak behera egiten baitu.

- **J. M. Z:** Finala zuzen jarri arte oso gogorra izan zen, gero tanto batzuetako diferentzia hartu genuen eta buena eginda, irabazteko nahikoa zen.

- **Bi txapelketa ego-**

teak meritorik kendu al dio zuen txapelari?

- **J. E:** Nik uste dut ezetz, nahiz eta beste enpresan pelotari onak egon gure enpresan uste dut onenak daudela: Galarza, Retegi, Beloki... Baina jendeak beti edukiko du gauza hori, ba pelotari guztiek ez dutela jokatu, baina gu prest gaude Maiz eta Alustiza-rekin jokatzeke.

"MANO-MANORA ILUSIO HAUNDIZ NOA"

- **Jose Mari, iaz binakako txapelketan bigarren, aurten txapela eta gainera demostratu duzu pelotarien eskilaran punta puntan zaudela eta zer espero duzu larunbatean hasikoden mano-manistan?**

- **J. M. Z:** Nik uste dut orain momentu onenean nagoela, orain dakidan guztia frontoian erakusten dut, lehen ez nuen erdia ere ematen eta orain pare bat urtetan ez badut aprobetxatzen gero ez dut aukerarik izango. Momentuan mano-manon bi pelotari bestek baino gehiago dira eta gero hor gaude beste zortzi bat pelotari; batetik

Etxaniz izango da Zezeagaren botileroa banakako txapelketan

ZEZEAGA

31 urte. 19 zituenetik profesional mailan. Profesioaletan emaitza onenak iazko binakako txapelketan Unanuerekin lortutako bigarren postua eta aurten Etxanizekin lortutako txapela. Banakakoan behin bakarrik parte hartu du (1990ean) eta lehenengo partiduan Ladutxeri 22-21 irabazi ondoren, bigarrenean Etxenagusiaren aurka galdu egin zuen (22-6).

ETXANIZ

22 urte. 3 profesioaletan, 1991ko uztailaren 28an debutatu zuen profesioaletan. Aurretik, gazte mailan GRAUNekoak eta beste hainbat txapelketa eskuratu zituen. Profesioaletan iazko Labriteko binakako txapelketan bigarrena izan zen Zezeagarekin batera eta aurten Zezeagarekin ere binakako txapelketaren irabazlea.



bestera ez dago diferentziarik eta hor zorteak eta bakoitzaren egunak erabakitzen du partidua zeinen alde joango den.

- Baina orainarte erakutsi duzun sasoia erakusten baduzu?

- J. M. Z.: Mano-manoak ez du zerikusirik binakako txapelketarekin, hau ikusteko datu objektibo bat dago, binakako txapelketaren 4 irabazle-etatik bakarrik bik hartuko dugu parte mano-manoan, eta gainera behetik hasita, honek argi uzten du bi txapelketak ezberdinak direla.

ENPRESA BERRIARI BURUZ

- ASEGARCEren sorrerak zer berri ekarri dio pelota munduari?

- J. E.: Bueno, haseran pentsa dezakegu maila jeitsi egin dela, baina niri pertsonalki oso ondo etorri zait enpresa berriaren sorrera, bestela ez niuen eta txapelketa hau jokatu.

- J. M. Z.: Oraindik enpresa berria sortu berria da eta ezin dezakegu esan funtzionatuko duenik. Nik orain kontratua daukat sinatua nere betiko enpresarekin, nire asmoa hemen jarraitzea da, baina etorkizunean edo-

zer pasa daiteke.

- Larunbatean zuen asmo guztiak bete al ziren?

- J. M. Z.: Nire helburua beti izan da profesioaletan puntaren puntan egotea, baina txapelak etortzen badira hobe.

- Jose Mari, nola ikusten duzu pelotari generazio berria?

- J. M. Z.: Nik uste dut oso maila handia daukatela, batez ere Eugi eta Belokik, baina uste dut Beloki izango dela hurrengo urteetan pelota profesionalaren menperatzailea. Beste gazteen artean uste dut, gure garaian debutatutakoek baino maila bajuagoa dutela, uste dut bi edo hiru pelotarik ezik beste guztiek ez dutela gauza berri asko erakutsi.

- Jokin, etorkizuneko ze asmo dituzu?

- J. E.: Hemendik aurrera nire asmoa onenekin sartzeta da eta datorren urterako beharbada mano-manoa preparatu (barre artean), ez baina urteren batean uste dut irtengo naizela mano-manoa jokatzerara. Baina orain bikoteka konfidantza hartu behar dut, eta nire jokoa hobetu behar ko dut.

- Nola ikusten duzue Jose Marik Alustizaren

aurka jokatu duen partidua?

- J. E.: Nik Jose Mari ilusio handiz ikusten dut, eta suete pixka bat izaten badu oso txapelketa ona egin dezake. Mano-manoan ez dago pronostiko garbirik, orain gainera denon gainetik pelotari bakarra ikusten dut, Ladis Galarza.

- J. M.: Niretzat zaila izango da, Martinek defentsa eta sake ona bait

du, baina nik nire jokoa egiten badut aukera asko izan dezaket partidua irabazteko.

- Datorren urtean ere batera?

- Hori enpresak erabaki beharko du, norma-lean bikote txapel-dunari enpresak aukera ematen dio bere txapela defenditzeko, eta guk gustora jokatu genuke datorren urtean biok batera.

BANAKAKO TXAPELKETAKO EGUTEGIA

A MULTZOA

- Zezeaga-Alustiza Martxoak 27 Tolosako Beotibarren.
- Irabazlea-Beloki Apirilak 3 Iruñeako Labriten.
- Irabazlea-Errandonea Apirilak 10 edo 11 Tolosan edo Zarautzen.

B MULTZOA

- Ansotegi-Irazola Martxoak 28 Gasteizko Ogetan.
- Irabazlea-Eugi Apirilak 4 Eibarko Astelenan.
- Irabazlea-Errasti Apirilak 12 Eibarko Astelenan.

• A multzoko irabazlea B multzoko irabazlearen aurka

Apirilak 24 edo 25 (Frontoia zehaztu barik)

• Irabazlea-Tolosa I Maiatzak 8 Bergarako Udal pelotalekuan

• Irabazlea-Arretxe Maiatzak 23 Tolosako Beotibarren.

• Irabazlea-Retegi Ekainak 6 Anoetan

FINALA

• Irabazlea-Galarza Ekainak 20 Anoetan.

IÑIGO IDARRETA, BERGARAKO FRONTOIKO ENPRESARIA:

"Zezeaga eta Etxaniz izan dira antolatu den txapelketa onenaren irabazleak"

Pelotaren mundua aztertzeke eta, batez ere, ASEGARCEren sorrerak pelotarengan izan duen eraginari buruz hitzegiteko Iñigo Idarreta (30 urte, bergararra) Bergarako Frontoiko enpresariarekin bildu gara.



- Bergararra zarenez gero, Zezeaga eta Etxaniz Txapeldun ikusteak poztuko zintuen...

- Enpresari ikuspuntu batetatik begiratuta berdin zidan edozein bikoteak irabazteak, baina egia da, bergararra izanik, bi bergararrek txapelketa irabazteak asko poztu ninduen.

- Ze irizpide erabili zenuten txapelketarako pelotari bikoteak osatzerakoan?

- Edozein motatako neurketa bat antolatzen denean, pelotarien arteko konpetitibitatea hartu behar da kontutan, lehiari arituko direnen arteko ekilibrio bat, nolabait esateko. Baina beste gauza batzuk ere hartzen

dira kontutan, Etxaniz eta Zezeagaren kasuan, esate baterako, biak bergararrak izatea edota Eugi eta Belokiren kasuan, biak naparrak izateaz gain oso gazteak eta etorkizun haundikoak direla, gainera izugarritzko ikusmina sortarazi dute biek profesionaltasunera pasa direnean, inoiz ikusi ez dena...

- Duda barik txapelketako onenak direla erakutsi dute...

- Bai, nik uste dut baietz, emaitzei gainbegiranda bat ematea besterik ez dago, ustekabeen partidu bakar bat galdu zuten Retegi eta Tolosaren aurka baina gainontzekoetan bikain aritu dira.

- Eta txapelketa enpresa guztietako pelotari

tariekin jokatu izan balitz irabazle gertatuko ziren?

- Hori ezin dezakegu jakin, beharbada bai, goian izango zirela ziur nago. Bestalde kontutan izan behar da hasieran Errasti eta Retegik bikotea osatu behar zutela eta azkoitiarraren lesio baten erruz, Tolosak jokatu duela. Errastik jokatu izan balu hauek ere aurrean ibiliko ziren. Kontuak kontu, Etxaniz-Zezeaga gaur egun osatu daitekeen pelotari bikoterik onenetarikoak da.

- Hala ere, ez duzu uste bi txapelketa jokatzekoan biak debaluatuta geratu direla, bakarria antolatuz gero hau konpetitiboa izango zela?

- Nere iritzia ez da oso objetiboa izango agian, baina datu bat argi dago, hain zuzen ere bi txapelketek sortarazi duten ikusmina. Txapelketa batek ofizialaren etiketa izan arren, zaletuek nahi dutena espektakulo onak ikustea da eta inguru honetako zaletuek gaur egun antolatu daitezkeen jaialdirik onenak ikusi ahal izan dituzte.

- Zergatik ez zineten adostasun batetara iritsi enpresa ezberdinak, txapelketa bakarria antolatzerakoan?

- Ba ASEGARCEk egindako planteamendua guretzat onartezina zelako. Haiek nahi zutena zen guk gure bikoteen maila jeistea txapelketa konpetitiboagoa izan zedin eta,

bestalde, ez zuten nahi izan bi bikote bakarrik presentatzea, euren asmoa bost aurkeztea zen. Nik espektakulo bat antolatu nahi badut eta Ferrari bat badaukat, ezin dudana da Seiscientos batekin irten.

Jendeak espektakulo onak ikusi nahi ditu eta 10 bikotez osatutako txapelketa bat antolatzea ezinezkoa da, beste arrazoi batzuren artean, frontoian dirua jokatzeko delako eta lehian ari diren bikoteen artean parekotasun minimo bat egon behar delako.

- Direnak direla, eskuzbanakako txapelketa bakarria antolatu da eta ez bi. Zergatik?

- Manomanista, pelota munduaren erregea da, hor ez dago zalantzarik eta manomanistako txapeladunari bere titulua defenditzeko aukera ezin diozu inoiz ukatu.

- Bai, baina binakako txapelketa ofizial bat antolatu da eta zuen pelotariak ezin izan dute txapelketa ofiziala jokatu. Palmaresean, aurtengo binakako txapeladunak Alustiza eta Maiz izango dira.

- Hori segun eta nork idazten duen palmaresean. Etxaniz eta Zezeaga izan dira antolatu den txapelketa onenaren irabazleak, duda barik. Edozein lehiaketatarako presentatzen zarenean, zure garaipeak balio haundiagoa izango du, zenbat eta zure arerioen maila haundiagoa izan.

- Eta posible izango litzateke Etxaniz-Zezeaga eta Alustiza-Maizen arteko desafia antolatzea?

- Hori ezin daiteke planteatu ere egin, baina ez enpresen arteko harremanengatik beste arrazoi batengatik baizik: partidu horretan dirua

"Ez da berdina Bergarako frontoian jokatu edo Zenizeron jokatu"

1000-300 bergararren alde irtengo litzateke. Aldea haundia izango litzateke. Pentsa ezazu...

- Aukerarik ikusten diozu Zezeagari banakako txapelketan?

- Zezeagak asko hobetu du azkenaldian. Izan duen problemarik haundiena, momentu inportanteetan urduri jarri izan dela da. Uste dut ondo ibiliko dela manomanistan, beti ere urduri jartzeko ez bada. Horregatik inportantea da berarentzako lehendabiziko partidua Bergaran ez jokatzea.

- Gaiz aldatuz, ASE-GARCEren sorrerak mesederik egin al dio pelotari?

- Pelotari orokorrean ez dio mesederik egin. Horrek ekarri duena kostu guztiak haunditzea izan da. Ez guri ezta eurei ere, ez die inolako mesederik egin, beharbada pelotari batzuentzat ona

izan da..., denborak esango digu hori.

- Baina pelotariak gehiago irabazten dute orain. Bai zuen enpresetakoek, baita ASE-GARCEkoek ere.

- Bai, baina zifra horiek ez datoz bat pelotaren errealitatearekin eta hori oso arriskutsua izan daiteke. Pelota ez da futbola. Nondik aterako dugu hainbeste diru?. Pelotarena negozio oso txikia da, askok hori uste izan ez arren.

- Belokik esan berri du pelotaren etorkizuna ASE-GARCEn dagoela. Zer diozu horri?

- Ez dakit etorkizunak zer ekarriko digun. Nik pelotaren oraina ezagutzen dut eta gaur egun argi dagoena da zein frontoitara doan jendea. Ez da gauza berdina Maestranzan toreatu ala Azpeitiko zezen plazan toreatu. Ez da berdina Bergarako frontoian edota Eibarko

Astelenan jokatu edo Zenizeron jokatu.

Etorkizunari begira uste dut pelotaren munduan gauzak aldatu behar dagoela, orain bezala ezin dezakegu jarraitu. Errealitateari aurre egin behar diogu. Ez bakarrik enpresariak, baita pelotariak eurek, eta kazetariak ere errealitateari hurbildu beharra dute.

- Bukatzeko, Bergarako frontoia Bergarako Enpresaren esku dago. Baina noiz arte?

- 1966an frontoia eraiki zenean 50 urtetarako kontratua sinatu genuen Udalarekin. Udal Pelotalekua da, Udalaren terrenotan, frontoi zaharren frontisa aprobetxatuz, eraiki zelako, baina Bergarako Enpresak egin zuen eta kostu guztia, mantenimendua, berrikuntzak e.a.ak gure kontu doazte. Udalak ez zuen ezer ordaindu eta gaur ere ez du ezer ordaintzen.

Ez da oraingo kontua

Abuztuan Zarauzko torneoa irabazi ondoren egungo atzelaririk onena Joxe Mari Zezeaga dela idatzi nuenean, batek baino gehiagok kontra egin zidan eta irrifar gaiztoaren bat botatakorik ere bazen. Ohizko enpresek antolatutako txapelketan hala erakutsi du berriro ere, oraindik ere meritu haundiagorekin gainera: aspaldian ikusi dugun Galarza onena izan du aurrean. Zezeagak ez du partidu txar bat jokatu eta lehenagoko huts galant haiek ahaztu ditu.

Jokin Etxanizek, berriz, ederki lagundu dio. Bere papera ondo bete du. Nire ustez, bere txapelketako partidurik onena lehenegoa izan zen, Eibarko Astelenan Retegi eta Tolosaren aurka jokaturakoa. Sekula ikusi diodan norgehiagokarik kompletoena. Pena da aurrean bi txapelketa jokatu izana. Enpresen arteko iskanbilek eragotzi dute denak batera aritzea. Pelotazaleak batera ikusi nahi ditu, lehiaketa ofizial eta serio batean, eta denborak ekarriko du hori, guztien mesederako bait

da. Orain lehen mailako eskuz banakako txapelketa dator, Zezeaga tartean dela. Uberakoa atzelaririk onena da..., baina ez manomanistarik onena. Asentatuago ikusten den arren zenbait gauza falta zaizkio: sakea, dejada, berezko gauza hori. Nahasten ez bada Alustiza gaudituko du, baina Beloki dauka zain. Eta Belokiri irabazteko asko eta ondo jokatu behar da. Probatuta dauka Joxe Mari.

Joseba Lezeta

Jakinduria zaharrak esan ohi du udaberrian odolak irakin egiten duela. Berrigarak jakin izan nahi du, betiko esaldi hau egia den ala ez, horretarako psikiatra batekin hitz egin dugu, gero irakasle bati ere eskatu diogu bere eritzia eta azkenik sendagile batek udaberriari buruzko bere ikuspegia adierazi digu. Irakurriko duzuen moduan, badirudi betiko esaera zaharra ez dela zientifikoa, baina badaezpada inork ez dio ezezko borobilik ematen.



JUAN TABARES

Udaberriak pertsonarengan sortzen dituen aldaketei buruz...

Sikiatra bat, irakasle bat eta mediku bat mintzagai

LIBURUAK AHAZTU ETA LORATEGIRA EGUZKIA HARTZERA

Mari Jose Mondragon, Institutoko irakaslea

- **Ikasleengan udaberri aldean aldaketarik somatzen al da?**

- Ba zerbait bai, ikasleak alaiago daude, klasean gehiago mugitzen dira, ez dira kontzentratzen. Bestalde, garai hau izaten da normalean azterketa garaia, batez ere UBIkoentzat, maiatzean bukatzen dute kurtsoa eta orduan halako

urduritasun bat egoten da. Nik ez dakit zergatik den ikasleen urduritasuna, azterketak, errekupe-raketak..., garai honetan beti dago ikasleen artean preokupazio kutsu bat. Baina bestalde eguraldi ona ere orain hasten da eta horrek klase barruan egotera baino klasetik kanpo ibiltzera bultzatzen du gehiago.

- **Klaseak ezberdinak al dira neguan eta udaberrian?**

- Nik, batez ere, ariketak egiterako orduan igartzen dut, nik klasean gauzak azaltzen dihardu-danean ikasleak adi egoten dira, baina gero ariketak egiten dituztenean

ikasleek elkarrekin egiten dituzte, ez da lanik ez dutela egiten, baizik eta mugikortasun gehiago dutela, batak besteari adarra jotzen, ez dakit alaitasun gehiago somatzen da ikasleen artean.

- **Azterketak egiterako orduan, eraginik ba al du eguraldiak?**

- Nik azterketa garaian nahiago dut eguraldi txarra egitea, eguraldi ona egiten badu beti ematen du kalera irtetzeko gogoa, ikasten gelditzen zara eta beti daukazu egonezin bat. Eskerrak Bergaran askotan eguraldi txarra egiten duela. Beti komentatzen dugu irakasle on artean azterketa gara-

ian hobe dela eguraldi txarra, horrela ikaslea etxean gelditzen da eta askoz ere gehiago ikasten du.

- **Udaberrian asistentzia asko jeisten al da?**

- Zeozer igartzen da, jendeak nahiago du kanpoan ibiltzea, baina nik asistentzia asko kontrolatzen dut eta nire klasetara etortzen dira, baina leihotik begiratzen dudanean neguan baino ikasle gehiago ikusten dut kanpoan, zelaian jarrita, eguzkia hartzen... noski eguraldi onak hau eskatzen du eta.

- **Zu ere ikasle izandakoa zara, nola izaten**

zen udaberria zuretzat?

- Udaberriak niri poza, alaitasuna, gauzak egiteko gogo... niri udaberriak morala igotzen zidan. Nahiz eta azterketak izan, beti garai onak ziren niretzat. Orain ikasteko orduan gogorra zen, zeren kanpoan sekulako eguraldia egin eta etxean ikasten egotea gogorra izaten zen.

- Udaberriak lizeak ugalzten al dira?

- Lizeak izaten dira, baina dena dela ikasleek kanpoko jendearekin Institutukoekin baino gehiago ligatzen dute. Klase barruan ez da lige askorik izaten, neskak adin gehiagoko mutilei begira egoten dira. Klase berean beharbada 3 urtetatik dabilta eta orduan kanpoko jendeaz fijaszen dira.

PSIKOSI MANIATIKO DEPRESIBOAK JOTA

Pablo Gallastegi, psikiatra eta psikoanalista.

- Udaberriak egia al da jendearen konportamendua aldatzen dela?

- Nik ez dakit hori egia den, orokorrean alda dezake, baina udaberria faktore txiki bat da, hona datorren jendeak bere arazo konkretua dauka.

- Orduan urte sasoiak ez du giza portaeran zerikusirik?

- Bueno kasu batzue-

tan badu zerikusirik, adibidez psikosi maniako depresiboan urtarokak bere garrantzia du. Gaisotasun honetan gaisotasunaren efektuak udaberriaren eta udazkenean gehiago igartzen dira, baina beste gaisotasunetan ez dago urtaro eta gaisotasunaren artean harreman argirik.

- Udaberriak giza portaeran duen ustezko eragin hori orduan desmitifikatu egin beharko litzateke?

- Ni ez naiz inor hori

esateko zeren ohiturak hori esaten badu zerbait egongo da.

- Urtean zehar zeintzu dira jendeak dituen arazo gehienak?

- Orain arazo garrantzitsu bat ari da agertzen, gazteen arteko psikosia, psikosia gaztearen zoraldia sortzen du. 18 eta 25 urte bitarteko gazte dexentek dituzte arazo hauek. Hasera batean gazteak krisi bat izaten du eta gerora bere pentsamenduetan murgiltzen da, hortik ez da irtetzen

eta orduan mentalki zintzilik geratzen da, bere munduan baino ez du pentsatzen.

- Psikosi hau igartzeko ze sintoma dauka?

- Sintomak aluzinazioak eta ideia deliranteak dira, gazteak gaisotasun hori duenean handikeria erakusten du, beti ideia arraroak eta portaera ere zeharo aldatzen du. Arazo hau oso larria da zeren oso gogorra da 25 urteko gazte bat zoraturta egotea.



Pablo Gallastegi



Marijose Mondragon

Osasunak gorabehera ugari

Udaberriaren, orokorrean, jendearen osasunak hoberantz jotzen du, baina badaude gaisotasun batzuk udaberriarekin larriagotzen direnak, esate baterako polenera alergia dutenek udaberriaren gaizki pasatzen dute, loreek beren hazia botatzen dutenean kalte egiten baitie. Hauei gomendatzen zaie mendian kontuz ibiltzea, kotxean bidaiaren bat egiten badute leihoak itxita eramatea eta gaisotasunaren lehen sintomak somatzerakoan

sendagilearena lehen bait lehen joatea gomendatzen zaie. Beste gaiso batzuk, duodenoko ultzera dutenak, udaberriaren beraie gaisotasuna areagotzen da, udaberriaren zergatik areagotzen den oraindik ez dakigu, baina estadistikek argi uzten dute garai honetan duodenoko ultzera dutenek udaberri gogorra pasatzen dutela. Gaiso hauei, nik, berehala erretzeari uztea gomendatuko nieke. Horrez gain udaberriaren gaisotasun

infekziozkoak ere ugari egiten dira, batez ere umeetan igartzen da hori, garai honetan umeek arrisku handiagoa dute elgorria, barizela, hepatitisa, ea... harrapatzeko. Dena den, orokorrean udaberriaren denon osasuna hobetu egiten da, batez ere gripe, katarro eta arnasa hartzeko zailtasuna dutenak beraie egoera hobetzen dute.

**Carlos Parra,
sendagilea.**

ARDATZA
Brikolaketak

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

**PELI NARBAIZA
IBARZABAL**



Autos General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57




Appéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Udaberriaren etorrerarekin neguko erropak gordetzen dituzu?



Alberto Ormazabal
33 urte, langilea

Ba ia neguko erropa guztia erretiratuta daukat, nahiz eta txamarra eta jertse pare bat eskura eduki, badaezpada.



Edurne Peña
31 urte, langilea

Zelan gorde? Hotz egiten du eta. Ez dut ezer ere gorde, aurrerago beharbada.



Imanol Mondragon
44 urte, langilea

Normalean bai, udaberrian beste janzkera bat izaten da. Baina fetxak baino eguraldiaren arabera ibiltzen naiz.



Eva Conget
27 urte, etxekoandra

Gordeta nituen baina berriro atera behar izan dut. Gainera kriston katarrua hartu dot...

**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

EDERRAGO EGINGO ZAITUZTEN SARIAK

LILURA edertze-institutuan sari asko dituzu zain. Bertan jasotzen duzun zerbitzu bakoitzeko, martxoan eta maiatzean zozketatuko diren 63 sari bikainetako bat lortzeko aukera emango dizun txartel bat eskuratuko dizute.

BERROGEITAMAR LOTE

HYGEA, higiene pertsonalerako produktuak edo, SORTEGE, ilearen edertasunerako produktuak.



Lote bakoitza:
12.000 pzta.

HAMABOST "EDERTZE TXEKE"


Edertze Integralezko Zerbitzu-Zentro batean erabateko tratamendua jasotzeko aukera emango dizuten "edertze txekak".



Txeke bakoitza:
30.000 pzta.

ASTEBETEKO "OSASUN ETA EDERTASUN" / OPORRAK

Bi lagunentzako egonaldia, Italian, Gardako lakuaren ondoan, PORTOFINO'S BEAUTY FARMen instalazioetan, gastu guztiak ordainduta.



Sariaren balioa:
700.000 pzta.

NOTARIO ETA GUZTIKO BI ZOZKETA, 1993ko MARTXOAREN 15ean ETA MAIATZAREN 10ean



**Aukera ederra,
beti ezkerria**

Aukera ederra, ezkerria, pentsatu dugunok egoera larrian gabiltza eskuinaren haize boladarekin, poztasunerako arrazoiak badauzkagu ere. Hain zuzen, liberal modeloaren porrota sinatzen ari delako -Estatu Batuetan eta Britainia Handian lurperatzen, dagoeneko- nahiz eta egunkarietako lehen orrialdeak mediterranean sozialismoaren krisi sakonak bete egunero.

Ezkerriaren hondamendia salatzen ari direnek etxeko trapu zikin guztiak izkutatzen dituzte, hala nola, eta batez ere, Hego Europako sozialismoen okerra boterea izan dutenean eskuineko politika izan dela.

Sozialdemokraziaren helburuek porrot egin dute, baina tira, sozialdemokratak izan dira? Ez zaio liberalismoari leporatu krisiaren ardura? Adibidez, Boyer eta Solchaga, Espainiako ekonomiaren arduradunak zer nolako politika egin ohi dute? Alegia, Keynes baino, Chicagoko Eskolarena. Osoko enplegua, politika fiskalak eta errenta banaketa alde batera utzi eta finantziar kapitalismoarekin liluratu dira. Exenplu nabarmenak azken hamarkadan, Estatu Batuak, Britainia Handia eta Espafia.

Clinton, batez ere, eta Major horrelako kapitalismoak eragin dituen astakeria guztiak konpon ezinean dabilta Estatuaren interbentzioa indartuz. Iberiar penintsulan aldiz, Solchagaren aurrean PPK aurkezten duen alternatiba merkatu librean eta Estatu minimoaren politikan finkatzen da.

Iñigo Urrutia



**Epeleren
etorkizuna**

Transportea nagusi den zibilizazio hau geldiezineko suntsigarri bihurtu da. Orain, Arrasatek ez pasatzeko aitzakiaz, aire, erreka eta baso ederrak kutsatzea onartzen dugu. EPELE aldeak 13 m.ko errepide berri bat jasatzeaz gain, 35 m.ko altuerako desmonteak izango ditu, eta gogoratu bertan dagoela zabortegei kontrolatu bat eta Mankomunitatearen planen artean Deba Garaia, Deba Behea eta Durangaldeko inzineradore berria jartzea ere aurreikusten dela.

Obra asko lerro gutxitan aztertzeke, beraz, EPELEko errekan izango duten eragin nabari-nabaria komentatuko dut besterik gabe. Diputazioak enkargatutako ingurugiroaren azterketak honelakoak esaten ditu: "Epele erreka- txoak ur garbi eta freskoak daramatza, inguruan altza pila bat duelarik". "Errekatxoaren bukaera aldera, Deba Garaiko Mankomunitatearen zabortegeirako sarbideko obrak direla eta, neurri haundi baten kutsatu da inguru hori".

Honelakoak esaten dizkigu gaur eguneko egoeraz eta errepidearen eraginaz, berriz, honelakoak: "Obra berriak eragin kaltegarria, iraunkorra, berreskurazina eta, azken finean, KRITIKOA izango du". "Hainbesteko gizateria egoteak eragin oso kaltegarriak izan ditu ingurugiroan, eta erreketan batipat".

Gaur egun arte inguruko jendea ur garbi horietan bainatzen bazen ere, gaurtik aurrera ez dugu halako aukerarik izango.

Miguel A. Lizarralde (EKI)

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**JULIA
Frutadenda**

Matxiategi 4, behea
BERGARA

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

FERNANDO ARENAZA
ECENARRO

MARGOAK



NAHIKARI

Taberna
MAZTERREKA 20 ☎ 76 57 71

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

KIZKUR




**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



□ Buzoi berriak

Bergarako auzoetan baserritarrentzako buzoiak jartzeari ekin dio **Mendiko Nekazaritza Elkarteak** Udalaren laguntzaz. Baserritarrei beharrezkoa duten zerbitzua emateko asmoz, 370 baserrirentzako departamentuak (ia baserri beste) jarriko dira hainbat auzotan, 3.970.000 pta. inguruko aurrekontuarekin, **Mendiko Nekazaritza Elkarteak** % 55a eta gainontzekoa Udalak ordainduta.



□ Zaharrei omenaldia

Pasa den igandean 87 eta 88 urteko bergararrei omenaldia eskeini zitzaien Jubilatuetan. Santa Marinaran meza entzun ondoren, salda eta lurcha banatu zen Jubilatuetan bildutakoen artean, **Fakundo Sarasketa** eta **Luzio Ubera** Elgetako trikitilariak alaituta. Ondoren 60 omendutakoek (28k ez zuten joaterik izan) opari bana jaso zuten **Luis Abajo**, **Carlos Arrondo** eta **Jabier Zendoia** zinegotziak, **Ines Etxeberria** Ongizate Zerbitzuko teknikaria eta Jubilatuetako zuzendaritza batzordeko kideen eskutik, emakumezkoei (44) lora-sorta eta brotze bana eta gizonei (16) erloju bana oparitzuz. Zorionak guztiei!!



School of English
BERGARA

Ibargararai, 31
☎ 76 03 53

**CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO P.E.T. AZTERKETARAKO
MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK
(Martxoak 22-30).**

ORDUTEGIA: 10.00-12.30.

OSTIRALETAN: 10.00-12.30 eta 14.30-19.00.

AZTERKETA EGUNA: Ekainak 19.

TOKIA: **Eibarko Armagintza Eskola.**

P.E.T. AZTERKETAK EGITEKO ZENTRU BAIMENDUA

□ **Mundialetara!!**

Jaime Garzia Murgiondo bergararrak epaile lanak beteko ditu datorren igandean, hilak 28, **Zornotzan** jokatu den **Munduko Kross Txapelketan**.

Jaimek 28 urte ditu eta gazte gaztetatik aritu da bergarar atletismoaren alde lanean. Igandean, munduko figurak gertu gertutik jarraitzeko aukera izango du beste 105 epailerekin batera (horietatik 20 gipuzkoarrak), korrikalarien helmugaratzeaz arduratu beharko da eta. Espero dezagun *foto-finish*aren beharrik ez izatea...




Zertan dihardute ba?

IBAN RODRIGUEZ




20 urteko kotxe-gidari bergarar honek ezin izan zuen igandean Albaceten jokatuako Copa Clio 16v. txapelketako lehen karrera amaitu, lehen bueltan ondoriorik gabeko istripu bat izan ondoren.

JON AGIRREBEÑA



Pol-Pol M.T. ko 13 urteko kide bergarar hau 2. eta 4. postuan sailkatu zen Valdezcarayn jokatuako Euskadiko Ski Txapelketako Slalom eta Slalom Haundiko probetan. Espainiako Txapelketan hartu du parte.



□ **Kinielaren asmatzaileak**

Mikel Santos "**Luismi**" eta Jesus Marin "**Boli**"k alde batetik (ezkerreko argazkian) eta **Jabier Fernandez** (eskumakoan), **Aitor Lazkano** eta **Roberto Polancok** bestetik, irabazi zuten azken asteotan binakako txapelketaren inguruan **BERRIGARA**k antolatutako pelota kinielaren azken ihardunaldia (Zezeagak eta Etxanizek 22 eta 15 irabazi zuten finala, 11-9 erdian) eta asmatzaileek orain arteko saririk haundiena jaso zuten, 59.500 pta. boleto bakoitzeko. 850 boleto egin ziren eta asmatu ez zutenek aukera berri bat izango dute Zezeagak eskuzbanako txapelketan jokatu dituen partiduekin.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

Umore giroan

Bost duro zor

Urlixa juan zan afari-merienda itxeko asmoz taberna batera. Epetan ibiltzia gustatzen jakona zan. Eskatu zeban kallo raziño aundixa ta arda botella ona. Bai ekarri be neskamiak. Ori dana ta gaztai zati aundi bat jan zebanian, 19 peseta pagatzia tokatzen jakon. Deitu zetsan neskame barri ari:

- Zu, ekatzuz 6 peseta.

Bai ekarri be neskamiak. Orduan emotetza peseta bat neskamiari esanaz:

- Eutsi zuretzat peseta bat profiña. Eta bestia apuntau kuadernuan: 25 peseta zorretan.

Iñork nai eztabena be falta

Alkartu da eibartar bat plaentxiar batekin. Zeozer esan biar eta esatetsa "ciudad ejemplar-ekuak".

- Zelan zabizie Plaentxian? Ze bizimodu daukazue?

- Bizimodua? Gaizki, mutill! Ara zertara eldu garan: iñork sekulan nai izan eztabena be -biarra- ,axe be etxakau oiñ!

Pedro Zelata



Gure Ametsa elkartearen inaugurazioaren eguna.

IGANDEAN INAUGURATU ZEN "GURE AMETSA" ELKARTEA

Joan zen igandean (1973-III-25ean) bedeinkatu eta inauguratu zen, goizeko 12.30etan Gure Ametsa Atsedean eta Kultur Elkartearen, San Antonio erdi-erdian dagoena.

Don Luis Laskurain Alkate jauna, Guardia Zibilaren komandantea, Polizia Munizipaleko burua, eta herriko elkarte eta ermandadeetako lehendakariak izan ziren inaugurazioan.

Don Serafin Esnaola abade jaunak, Gure Ametsako bazkide denak

bedeinkatu zuen ekitaldia.

Honenbestez, badugu elkarte berri bat, orain arteko asko bezala, aurrerantzean Alkartu Nahiko, herriko gizarte arazoei interbidea bilatzeaz arduratzen den elkarte horretako, kide izango dena.

La Voz de España orri honetarik arrakastarik haundiena opa diegu Gure Ametsako zuzendaritzakoei eta bazkide guztiei eta beren lana izan dadila San Antonioko auzoaren onerako.

Juan Luis Bikuña. 1973-III-27. La Voz de España.

ORAIN DELA...

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGUREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

JOSE
LUIS

eta

MIKEL

URTEAGA, 6

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17


Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa



Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

JON LASA eta JOSU GOENAGA

Lorelei eta Galarreta zeuden kantoiari zaborrak botatzeagatik ezartzen zen multa 10 pezetakoa zen. Horrela adierazten du bertan dagoen iragarkiak. Horixe zen aurreko Galde Debaldeko erantzun zuzena.

JON LASA eta JOSU GOENAGA dira aste honetako irabazleak. Berentzako, beraz, **ZUBIKUA JANTZIDENDAK** emandako sarria. **ZORIONAK !!**

Eta besteok segi asmatzen, blla dabillenak topatu egiten du eta! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



JON LASA eta JOSU GOENAGAK jaso dute aste honetan ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria.



zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA

☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUMELAGA JATETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Bergaratar ospetsuen artean Meltxor Sanchez Toca mediku famatua dugu, Bergaran kalerik ez duena baina Donostian bai. Medikuntzan goi mailako gizona izan zen Espainiako Medikuntzako Erret Akademiako lehendakari ere izan bait zen, Isabel II. erreginaren mediku pertsonala ere izan genuelarik. Emandako datu guztiekin erraz aurkituko duzue aste honetako galderaren erantzuna:

Zein urtetan jaio eta zein urtetan hil zen Sanchez Toca mediku bergararra?



_____ izena

_____ abizena

_____ telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Aste Santurako ski irteera

Pol-Pol Mendizale Taldeak apirilaren 9tik 17ra bitartean Alpesetara joateko (Plaigne ski estaziora) ski irteera antolatu du. Prezioa 45.500 pta.koa izango da eta interesatuek lehen bait lehen eman beharko dute izena Pol-Poleko bulegoetan.

Uzarragara igoera

Igandean, hilak 28, jubenilentzako Uzarragara XVIII. Igoera jokatu da Antzuolan. Irteera goizeko 10etan izango da eta, 74 km.ak bete ondoren, txirrindulariak eguerdiko 12etan helmugaratzea espero da.

Senior gizonetzkoen eskubaloi taldeak igoera fasea jokatuko du

Bergara K.E.ko senior gizonetzkoen eskubaloi taldeak 2. maila nazionalera igotzeko jokatuko den ligillan parte hartzeko eskubidea lortu du, joan den igandean Urnieta 17 eta 18ko emaitzarekin irabazi ondoren.

Jose txo Muniategiren taldeak ligako azken partidua jokatuko du igandean (12etan Kiroldegian) Pasaitarraren aurka baina partidu horrek ez du inolako garrantzirik sailkapenari begira, matematikoki igoera fasea jokatzeko sailkatuak daude eta. Liga txapelketan jokatu dituzten 21 partiduetatik, 15 irabazi, 2 berdindu eta 4 besterik ez dituzte galdu bergararrek.

Beraz, apirilaren 3tik ekainaren 12ra bitartean 2. maila nazionalera igotzeko ahaleginetan arituko da Muniategiren tal-



Muniategiren taldeak liga txapelketa bikaina burutu du.

dea. Bere esanetan, "taldeak oso liga txapelketa bikaina burutu du eta sari gisa igoera fase hori jokatuko dugu. Asmoak? Datorkiguna ikusi eta igotzeko aukera izaten badugu ea aprobetxatzen dugun..."

Ez zuen espero Jose txok liga amaitzeko partidu bat faltan bere taldea sailkapenean hain

ondo sailkatua egotea. "Egia esan, ez genuen espero horrelako emaitzarik lortzea, oso ekipo gaztea dugula kontutan izanda. Hala ere gu primeran ibili gara eta beste batzuk, berriz, ez hain ondo.

Igoera faseko ligillan 6 talde izango dira eta lehen biek lortuko dute igoera.

Kirol zentrua liburutegian

Udal Kirol Zerbitzuak bultzatuta, kirol dokumentazio zentrua jarri da martxan Kultur Etxean, kirol mailan sortzen diren kezkek edo zalantzak argitu eta kirol arloan mugitzen direnen teknifikazio maila hobetzeko asmoz. Zentru hau herritar guztiei zabaldua dago eta dagoeneko 74 liburu eta 76 artikulua sailkatu dira, kopuru hau gehitzeko asmoa dagoelarik. Kirol liburu edo artikulua hauek erabiltzeko interesa dutenek liburutegiko arduradunengana jo dezakete.




Siaska
Dena zure haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria eta mekanika

Leizeaga, 1 (San Lorentzo pol / ind)
☎ 76 35 09 BERGARA





San Antonio Jaiak

Don Serafin Trintxerpetik Bergarara etorri zenean, bertatik hainbat ohitura ekarri omen zituen eta horietako bat jaietan sardinak erre eta saltzearena izan zen. Orain dela 20-25 bat urte San Antonio jaietan egin zuten hori urte pare batez eta gero ohitura haren ordeztu goia sartu zuten.

Hara zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

Purita Garcia, Patxi Uribesalgo, Mari Paz Alustiza, Amaia Garmendia, Jose Jabier Manso, Lucia Farras, Maria Rosa Alustiza, Felisa izeneko bat, Jesus Igartua, eta Mainer.

Estepan Plazaola

Argazkiak: Amaia Garmendia

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH

VITA


UNIBER

CAUDAL



HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

3 pertsonarentzako **pisua alokairuan** hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñatan. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Artzamendin pisua salgai ☎ 74 40 82.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 73 28 52. Egurdian edo gauean.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Pisua salgai Herri Lagunak kalean. ☎ 76 24 79.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... ☎ 76 50 18

Garajea salgai Urrats azpian. 1.200.000 pza. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Eskiatzeko botak (44a) eta **Snow-Board** eskiatzeko tabla salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Kanping denda salgai (haundia). ☎ 76 26 73

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero Bergaratik Zornotzara joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauez) edota 79 82 10 (egunez).

Errekuperatutako eta berriztutako altzariak salgai. ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Ileapaindegiko altzari eta lan tresna guztiak salgai. Ia berriak. ☎ 76 25 38 / 76 23 37.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Softwaredun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pza. ☎ 76 45 21 (Jabi).

LANA

Neska batek edozein motatako **lanak** egingo lituzke. ☎ 76 38 90.

AutoCAD, FP2 Informatica praktikan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta interprete lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen dizugu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Maria Fe Zorrilla Navarrete
martxoak 19, 58 urte
Jose Uribetxeberria Bordazar
martxoak 22, 43 urte

Jaiotakoak

Aste bonetan ez da epaitegian jaiotakoen berririk jaso

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
asteleheneetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

ELKAR

Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16



- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- PLASTIFIKAZIOAK
- PLANOEN KOPIAK
- JENDEARENTZAKO FAXA

- ENKUADERNAZIOAK
- Termo-enkolatuak
- Burdinazko espiralak
- Plastikozko espiralak
- Fazikuloak



ESKAINZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPER (500 orri): 495 pzta.